

ELANTXOBEKO SARBIDEEN KONTROL-ERABILEREA ARAUTZEKO ARAUDIA

XEDAPEN OROKORRAK.

1. ARTIKULUA.- Definizioa

Araudi honen bidez, ondoko honeek arautzen dira: Elantxobeko Udaleko erabilera publikoa daukien instalazinoetako sarbideen kontrola, eta instalazino horreetara sartzeko txartelaren eta/edo giltzen funtzionamentua. Holan, instalazinoak errezago erabiliko dira, eta erabilera hori antolatua izango da.

2. ARTIKULUA.- ERAGINA.

Hasiera batean, araudiak Udalaren honako aktiboetarako sarbideen kontrola arautuko dau:

- Gorgonio Rentería Kultur Etxea
- Udal ludotekea
- Udal kiroldegia
- Ikutzen dan urigunea.

3. ARTIKULUA.- ORDUTEGIA.

Instalazinoak erabilteko ordutegi bat ezarri da. Debekatuta dago instalazinoak ordutegi horretatik kanpo erabiltea, Elantxobeko Udalak beren beregi horretarako baimena emon ez badau.

	ORDUTEGIA			
Egunak	Gorgonio Rentería	Kiroldegia	Ludotekea	Urigunea
Lanegunak	10:00 - 21:00	10:00 - 21:00	18:30 - 21:00	09:00 - 21:00
Jaiegunak	10:00 - 21:00	10:00 - 22:00	10:00 - 21:00	09:00 - 22:00

4. ARTIKULUA.- AKTIBOEN EZAUGARRIAK ETA JARDUERA.

- **Gorgonio Rentería Kultur Etxea**
 1. Kultur Etxeak lau gela daukaz: informatika gelea, liburutegia, gazteen gelea eta erabilera askotarako aretoa. Azken bien jarduera nagusia arte ederrak garatzea eta bultzatzea da, baina topagune moduan eta, oro har, ideiak eztabaidatzeko toki moduan be erabilten dira.
 2. Informatika gelea eta liburutegia ikasteko, irakurteko, informazioa topatzeko eta horreei lotuta dagozan ekintzetarako baino ezin erabili daitezke. Gela honeetan isiltasuna eta errespetua beharrezkoak dira. Informatika gela erabili ahal izateko ezinbestean egon behar da alta emonda GZGunean.

3. Lehenengo eta beheko solairuko ganerako gelak beste ekintza batzuetarako erabili ahal izango dira, beti be bizikidetzako ohiko arauak betez.
4. Instalazioen erabilera kontrolatuko erabilera koadrante bat ezarriko da, eta erabilteko guztiek errespetatu beharko dabe. Kultur Arloak babestutako ekintzak garatzen dabezan kultur alkarrekin instalazioak erabilteko lehentasuna eukiko dabe.
5. Erabilera orokorreko gela guztietan erabilera koadrantea ipiniko da, zein ekintza egiten dan idazteko bertan.

- **Udal ludotekea**

1. Ikastetxe publikoko jolastoki zaharrean dago udal ludotekea. Gela garden bat dauka, eta han garatzen dira haur eta gazteentzako askotariko ekintzak.
2. Ludotekea erabilteko behar-beharrezkoa da pertsona helduak be egotea ekintzak zaintzen. Izan be, heldu horreek antolatu eta dinamizatu behar dituzte ekintzak, baita kontrolatu be; helduek eukiko dabe ekintzak garatzen dabezan umeen ardura.
3. Zero (0) eta hamahiru (13) urte arteko umeek erabili daikie zerbitzua. Umeek 14 urte beteten dabezanean, sartzeko txartela balio barik itziko da; orduan, gurasoek eta/edo tutoreek eskatu behar dabe adinbakoia (18 urte bete arte) Udalaren ganerako instalazioetara sartzeko baimena.
4. Gurasoen alkarrekin instalazioa antolatzeke eta/edo erabilteke lehentasuna eukiko dabe, baina bazkide ez diranak ez dira diskriminatu. Alkarrekin hitzarmen bat izenpetu daikie Udalagaz, instalazioa eurek bakarrik antolatzeke eta kontrolatuko.
5. Alkarrekin Kultur Arloagaz batera lan egin behar dabe, oro har erakundeek (Suspergintza, etab.) egin gura dabezan ekintzak garatzen, erakundeen baliabideak eta laguntzak eskuratzen. Hareen eretxia eta Kultur Arloarena kontuan hartuta egingo dira kudeaketa lanak.
6. Gorgonio Rentería Kultur Etxeko erabilera askotako gelea erabilteke lehentasuna euki daiteke, alde zuzenetik zehaztutako kultur eta aisia jarduerak garatuko bada. Baina horretarako, sei egun lehenago eskatu beharko da gela hori. Ezin da gela telefonoz gorde; eta tasaren bat ordaindu behar bada, ezin izango da tasaren ordainketa atzeratu.
7. Ludotekearen erabilera pribatiboa edo irabazizko erabilera egingo bada (urtebetete-jaiak, etab.), sei egun lehenago eskatu beharko da gela, ohiko prozeduraren bidez (5. artikuluan zehaztuten da). Gela eskatzen dauen pertsonak eukiko dau adinbakoek edo besteren batek eragindako kalteen ardura.

- **Udal kiroldegia**

1. Elantxobeko Ur Lohien Araztegiaren hegoaldean dago. Herriko arraun klubari eta Atxurkulu Mendi Klubari emoten deutse zerbitzua. Hiru solairu daukaz, eta gela desbardinak.
 2. Eraikinaren zati bat arestion aitatu dogun alkarteek erabilten dabe, eta hareen ardurapekoa da. Baina beste gela batzuk behar dan moduan prestau dira herritarren erabilera orokorrerako.
 3. Salbuespen moduan, kiroldegiko atal batzuk baimenduta dagozan gertaera jakin batzuk egiteko erabili ahal izango dira, baldin eta aitatu diran alkarteen gertaeren egun berean egin behar ez badira.
 4. Mota guztietako jarduera fisikoa eta psikomotorea bultzatzen daben jarduerak garatu ahal izango dira bertan, eta lehentasuna eukiko dabe jarduera mota horreek Udalerrian egiten dabezan alkarteek (errolatuta dagozanek).
5. Elantxoben errolatuta dagozan kirol alkarteek instalazinoa antolatzeke eta/edo erabilteke lehentasuna eukiko dabe, baina bazkide ez diranak edo erabiltzaileak ez dira diskriminauko. Alkarte horreek hitzarmen bat sinau daikie Udalagaz, instalazinoa eurek bakarrik antolatzeke eta kontroletako.
 6. Alkarteek Kultur Arloagaz batera lan egin behar dabe, oro har egin gura dabezan ekintzak garatzen, eta erakundeen baliabideak eta laguntzak eskuratzen. Hareen eretxia eta Kultur Arloarena kontuan hartuta egingo dira kudeaketa lanak.
 7. 18 urtetik gorako pertsonak eskatu daikie sartzeko txartela. 14 urte beteten dabezanek be eskatu daikie, gurasoen baimena badaukie, Udalaren ganerako instalazinoetan ezarten dan moduan.
- **Uriguneko zirkulazinoa.**

DEFINIZINOA

Uriguneko alderdi honeetan:

- Eliza barri, San Nikolas eta Portu Kalea plazak.
 - Kale Nagusia eta Portukale.
 - Bermokiz auzoa.
- 1 **Erabat debekatuta dago** uriguneko alderdi horreetako “Gune Urdinetan” aparketea bagilean, garagarrilean eta abuztuan. **Bakarrik** aparkau ahal izango dabe ibilgailuen zirkulazinoaren udal zerga ordaintzen daben errolatutako egoiliarrek (aurrerantzean **ibilgailu egoiliarrak**), edo Udalaren baimen berezia daukien pertsonak. Ibilgailu egoiliartzat hartuko dira, ganera, Udalerriko jarduera-lizentzietara atxikita dagozanak.
 - 2 **Debekatuta dago** urte guztian zehar **aparketea** Bermokiz/kanposantua eta Portu Kalea artean. Han aparketako ezinbestekoa da Udalaren baimen berezia eta beren beregikoa eukitea (ibilgailu egoiliarrak). Ordenantza honetan ezarten diran orduetan bakarrik ibili daitekez ibilgailuak.

- 3 Baimenak identifikatu eta kontrolatu behar direnez, adjudikaziodun erabiltzaileak idatziz eskatu behar dira baimena. Halanda ere, ez dabe baimenik eskatu behar Udalerrian erroldatuta dagozanek, ibilgailuaren udal zerga Elantxoben ordaintzeko helbideratuta daukienez (**ibilgailu egoiliarrak**), eta udal tasak ordaindu behar ez dabezanek (aurrerantzean ibilgailu egoiliarrak izango dira honeek ere). Azken honeei urtero baimen-eranskailu bat emongo jake, hareei jagoken zergearen ordainagiriagaz batera.
- 4 Etxerako zamaletak egiteko aparkatu daitezke, baina gehienez ordu bitan; kasu horretan, larrialdi-argiak biztuta itziko dira.
- 5 Debekatuta dago San Nikolas eta Portu Kale plazetan aparketea, Udalaren baimen berezirik ez badago. Dana dala, baimen hori bakarrik emongo da zamaletak egiteko, eta gehienez 30 minututarako.
- 6 Elantxobeko herritarrei zerbitzua emotera datozen mantentze-lanetako ibilgailuek aparkatu daitezke, baimen barik ere, baina gehienez ordu bitan.
- 7 Obra-lizentziei eta/edo mantentze-lanei atxikitako ibilgailuek modu kontrolatua aparketea baimendu ahal izango du Udalak, baldin eta **lehenengo** okupazioaren tasa egokia eta zirkulazio tasea (aplikatu daitezkeen kasuetan) **ordaintzen badabere**. Ibilgailu horreek leku jakin batzuetan, hau da, baimendutako tokietan, aparkatu dabe.
- 8 Halanda ere, Udalak beretzat gorde du arauaren peko aparkaleku kopurua eta aparketako tokia aldatzeko, gehitzeko edo murriztuteko eskubidea, emoten du zerbitzuaren beharrezan eta erabilgarritasuna kontuan hartuta.

5. ARTIKULUA.- SARTZEKO TXARTELA/GILTZA ESKURATZEKO ETA ERABILTEKO BALDINTZAK.

1. Debekatuta dago udal instalazioetara sartzea egiaztagiri egoki barik; sartzeko txartelaren eta/edo giltzaren titularra izan behar da.
2. Ondokoek eskatu ahal dabe sartzeko txartela/giltza: egoiliarrek, erroldatutako pertsonak edo bigarren etxebizitza Elantxoben daukienez, oporretan dagozanek eta Udalerrian lan egiten dabenez, edo Erkidegoko zuzenbidearen arabera eskatu daikienez. Baina kultur/kirol instalazioetan ezin da irabazizko jarduerarik egin.
3. Txartela eskatzen danean ezin da euki kargarik, eta udal tasak ordainduta egon behar dira.
4. Eskabide zehatz bat bete behar da eta, gero, udal erregistroan aurkeztu. Eskabideagaz batera aurkeztu behar dira: NANaren fotokopia (pertsona fisikoek) edo IFKren fotokopia (alkarteek eta/edo pertsona juridikoek).
5. 18 urtetik gorako pertsonak eskuratu daitezke txartela; eta adinbakoakaz sartzen badira instalazioetara, adinbako horreen arduera euren izango da.
6. Txartela idatziz eskatu behar da. Horretarako, eskabidea behar du legez bete behar da, eta erantsita doazen arauak onartu behar dira.
7. Gorgonio Rentería Kultur Etxeko erabilera askotako gelea eta udal ludotekea erabilteko lehentasuna euki daitezke, alde aurretik

- zehaztutako kultur eta aisia jarduerak garatuko badira. Baita gero proposatzen diranak garatzeko be, egoki baimenduta badagoz. Dana dala, sei egun lehenago eskatu beharko da baimena Udaletxeko erregistroan. Ezin dira gelak telefonoz gorde, ezta prezioa beranduago ordaindu be.
8. Erabilereagaitik kuota jakin batzuk ezarriko dira; gelea gordeten danean eta Udalak baimena emoten dauenean ordaindu beharko dira kuotok.
Gordetako instalazioa erabilten ez bada be, instalazio horretarako ezarri dan tasea ordaindu behar da, eta ez da ezelako erreskaterik egongo.
 9. Ezinbesteko baldintzea izango da hurrengo egun baliodunean Udaletxean denpora partzialerako adjudiketan dan txartela aurkeztutea.
 10. Edozein udal instalaziotara sartu aurretik, ezarrita dagoan tasea ordainduta dagoala egiaztatzen dauen sarbide- txartela edo giltza euki behar da, kasuan kasuko instalazioaren erreserbeagaz batera.
 11. Txartela agiri pertsonal eta transferiezina da, eta urterako balioa eukiko dau; txartel hori modu automatikoan barritu ahal izango da. Halan be, arauan behar dan moduan zehazturik dagozan erabilera- epealdi txikietarako be eskuratu ahal izango da.
 12. Udalak beretzat gorde dau fiantza bat apliketako eskubidea baimen partzialak emoten diran kasuetarako; fiantza hori txartela emoten danean edota bidezkoa dan ikuskapena amaitzen danean sortuko da.
 13. Txartela galdu, ohostu edo hondatu ezkeru, barritu egin ahal izango da kuota egokia ordaindu ondoren.
 14. Kirol eta kultur alkarteek euren kide guztien zerrendak aurkeztu beharko dabez, hareei tasen gitxipen egokia ("R2") aplikau ahal izateko; osterantzean, eskatzailea alkartearen kidea dala egiaztatzen dauen ziurtagiria aurkeztu behar da, ze bestela ezin izango jake arestion aitatu dogun gitxipena aplikau. Ziurtagiri hori urtean-urtean eguneratuko da.
Txartelen titular ez diran alkarteen kideek ezin izango dabe kultur eta kirol instalazioetara sartu.
 15. Erretirauta dagozan pertsonen pentsinodun-ziurtagiria aurkeztu beharko dabe hareei tasen gitxipen egokia ("R1") aplikau ahal izateko, ze bestela ezin izango jake arestion aitatu dogun gitxipen hori aplikau.
 16. 14 urtetik (beteta) 18 urtera arteko (bete barik) pertsona fisikoak instalazioetara sartu ahal izango dira txartelaren jabe diran gurasoek edo tutoreek aurretiaz baimendu edo eskatu ezkeru; baimen edo eskabide hori behar dan moduan konpultsau beharko da erregistroan, eta gurasoek edo tutoreek eukiko dabe baimenduek eragin daikiezan kalteen erantzukizuna.
 17. Baimena eta ondoko "SV", "G" eta "I" zirkulazino-tasea jaso ahal izateko, udal erregistroan honako ziurtagiri honeek aurkeztu behar dira:

- “SV” zirkulazino-tasea: bigarren etxebizitzeari jagokon jabetza-ziurtagiria edo titulua; titularra izan ezean, familia-liburua aurkeztu beharko da, familia-unidatea erasoten dauena.
- “G” zirkulazino-tasea: udal etxebizitza baten egoiliar izateari jagokon ziurtagiria, alogeran izan, lagapenean izan zein ostatatze modura izan.
- “I” zirkulazino-tasea: udal esparruko obra-lizentzien edota konponketa-lizentzien prestazinoari jagokon ziurtagiria edo mantentze-zerbitzu ofizialari joakon egiaztagiria.

6. ARTIKULUA.- HONDAMENAK ETA KONPONKETAK

1. Sartzeko txartelaren erabiltzaileak eukiko dau instalazino guztietako baliabide materialak behar dan legez erabili eta kontserbetako erantzukizuna, bitarteko horreen tipologiari eta jarraibide-eskuliburuari begiratuz; era berean, materialok txarto erabili ezker, bera izango da horren erantzulea, eta erabiltzailearen ardurapeko adinbakoek eragiten dabean kalteen ardurea be berea izango da.
2. Era berean, erabiltzaileak berak edota instalazinoak erabilten dagozan pertsonak eragiten dabean kalteen barri emon behar deutso interesatuak Udalari.
3. Udalak instalazinoen suntsikortasuna hartu beharko dau kontuan eragiten diran kalteen erantzukizuna ezarterakoan.
4. Udal teknikari eskudunak ebaluauko ditu eragiten diran kalteak, eta honako araudiaren arabera ebatziko da kalteok konponduko diran edota horreen ganeko isunik jarriko dan.
5. Udalak ez dau erabilerarako baimen-epealdian zehar lokaletan dagozan erabiltzaileen materialak ikutzen dabean hondamen, lapurreten eta abarren erantzukizunik eukiko.

7. ARTIKULUA.- BIZIKIDETZA ARLOKO ARAUAK ETA BAIMENDUTA EZ DAGOZAN JARDUEREI BURUZKO ARAUAK

Sarbideen kontrolaren erabiltzaileak beti errespetau beharko ditu bizikidetza arloan ezarrita dagozan arauak, ganerako erabiltzaileakaz liskarrak eta afektazinoak sortzea saihestuz.

1. Instalazinoen barruko jarduerak beti lotu beharko jakez honako araudi honetan ezarrita dagozan araei, Udalak beren beregiko baimen berezia emoten dauenean izan ezik.
2. Instalazinoak garbi eta txukun itzi beharko dira erabili ostean, gauza guztiak barriro erabilteko moduan, euren tokian eta garbi-garbi itziz.
3. Debeku da politika partidistei jagoken adierazpenik egitea, eta bai erabilten diran instalazinoetan halako adierazpenik identifikau ahal izatea be.

4. Debeku da instalazinoetako altzarietan edo hormetan kartelik ipintea, egoki dan arloak horretarako beren beregi baimena emoten dauenean izan ezik.
5. Debeku da lokaletan norberaren materialak edota alkartearen materialak iztea erabilerarako denporea amaitu edota instalazinoak itxi ondorik, Udalak aurretiaz beren beregi baimena emon ezik.
6. Kultur eta kirol alkarteek, beren beregi baimena eskuratu ostean, giltzapeko armairuak edota edukiontziak jarri ahal izango dabez eurei esleitzen jakezan lokaletan, beti be euren erantzukizun soilaren pean.
7. Zeharo debeku da eta falta larritzat joko da udal lokalak jaiak, jatorduak, askariak, urtebeteteak eta antzeko jarduerak burutzeko erabiltea edo txoko modura eukitea, Udalak beren beregi baimena emon ezean.
8. Zeharo debeku da eta falta larritzat joko da udal instalazinoen barruan alderdi politikoei edota irabazpideko erabilerei jagokezan kartelak edo iragarkiak jartea, erabilera askotarako Gorgonio Rentería izeneko gelan behar dan moduan eskatzen dan eta baimenduta dagoan jarduketa politikoa izan ezik.
9. Zirkulazino-bide publikoen erabiltzaileek oinezkoek ibilgailuen aldean daukien lehentasuna eta manuzko zirkulazino-arauak errespetau beharko dabez; orduko 10 kilometrokoa izango da herri bideotako abiadura-mugea.

8. ARTIKULUA.- TASAK

Subjektu pasiboa

Kasu honetan, prezioa ordaindu behar dauen subjektu pasiboa sarbideen kontrolaren erabilerea gaitzen dauen titulua emon jakon txartelaren edo ibilgailuaren titularra izango da.

Ondoko honeek dira sarbideen kontrolaren erabilerarako ezarri diran tasak:

1. "R" tasea: udalerriko egoiliarra dan erabiltzailea (erroldatua).
2. "SV" tasea: bigarren etxebizitzea daukan erabiltzailea (erroldatu bakoa).
3. "G" tasea: oporraldietako edo iragaitzazko erabiltzailea.
4. "I" tasea: industria-erabilerako erabiltzailea.

Era berean, ondoko gitxipenak be ezarri dira, tasen taulan aplikau behar diranak:

R1: Tasearen % **75**eko gitxipena pentsinodunentzat.

R2: Tasearen % **80**ko gitxipena Udalerrian jarduera sozio-kulturalak edo kirol jarduerak burutzen edo halakoak gauzatzen kolaboretan daben alkarteentzat.

R3: Tasearen % **100**eko gitxipena Udal Talde Politikoentzat.

R4: Tasearen % **80**ko gitxipena gizartean bazterturik egoteko arriskua daukien familia-unidadeentzat.

R5: Tasearen % **50**eko gitxipena Ludotekan bigarren semea/alabea inskribitzeagaitik.

R6: Tasearen % **100**eko gitxipena Ludotekan hirugarren semea/alabea eta hortik gorakoak inskribitzeagaitik.

R7: Tasearen % **70**eko gitxipena Udalerrian erroldatuta dagozala egiaztatzen daben eta Gorogonio Rentería-ko KZGunea eta ordenagailu-gelea erabili behar daben ikasleentzat.

R8: Tasearen % **100**eko gitxipena Udal Liburutegia antolatzen eta kudeatzen dauen/daben pertsonarentzat/pertsonentzat (gehienez, hiru).

TASEN TAULEA

Urteko eta hileko erabilerarako tasa honeen prezioak ezarri dira:

TASEA	Gorgonio Rentería	Kiroldegia	Ludotekea	Urigunea
R	25 €	30 €	25 €	0 €
SV	35 €	40 €	30 €	0 €
G	10 €/hilean	10 €/ hilean	10 €/ hilean	10 €/ hilean
I				20 €/ hilean edo 100€/urtean

“I” taseari jagokonez, obrak adjudiketan jakezan kontratistek hileko edo urteko ordainketak egitea aukeratu ahal izango dabe.

Txartela galdu eta hondatu eta beste txartel bat eskuratu behar izan ezkeru, 10 euroko tasea ordaindu beharko da.

Zerbitzugintzearen lehenengo hilari jagokon hileko ordainketea “G” eta “I” idatz-zatietan ezarririk dagoan zenbatekoaren heinekoa izan daiteke, zerbitzu hori hilabete osorako emoten ez danean eta beti be hileko edo zatikiko 5 eurotan ezarrita dagoan gitxieneko kopurutik abiatuta.

Araudi honetan adierazoten ez dan jarduerarik burutu nahi daben pertsonak, taldeek eta alkarteek “Gorgonio Rentería Kultur Etxeko erabilera askotarako gelea” erabili gura izan ezkeru eta gela hori erabilteko baimena emon ezkeru, orduko 25 euroko tasea ordaindu beharko dabe. Horretarako, Udal

Erregistroan eskatu beharko da baimen hori, erabili baino sei egun lehenago; ezin izango da telefono bidez erreserbarik egin, ez eta prezioa ordaintzerik geroratu be. Gelearen erabilerea izango da ezarrita dagozan kuoten kontzeptua, eta kuotok Udalak onartu eta erreserbea egiten dan unean bertan ordaindu beharko dira.

Erreserbetan dan instalazinoa ez erabilteak ez dau instalazino hori erabilteagaitik ezarririk dagoan tasea ordaintzetik salbuetsiko, eta ez dau ezelako erreskaterik berreskuratzerik eragingo.

9. ARTIKULUA.- BILKETEA

Tasak ondoko koadro honen arabera ordainduko dira:

TASEA	BILKETEA
R	Helbideraturik/urtekoa
SV	Helbideraturik/urtekoa
G	KKren bidezko ordainketea/Udalari
I	Obra lizentziari jagokon ordainketea/Udalari

“G” e “I” ereduak: aldez aurretik kontratauko dira, eta aurreikusirik dagozan egunak adierazo beharko dira; horren ostean, sarbideen kontrola balio barik geratuko da, baina barriri aktibau ahal izango da beste eskabide bat egin ostean. “SV” ereduaren erabiltzaileek be eredu hau aukeratu ahal izango dabe.

10. ARTIKULUA.- FALTAK

Honako araudi honek ikutzen dituan instalazinoak erabilten dabezan pertsonak araudian jasoten diran jarraibideak errespetau beharko dabez, eta bai udal arduradunen edota hitzarturiko alkarteen adierazpenak be; hainbestez, honako araudi honetan ezarririk dagoanaren eta berariazko xedearen arabera erabili beharko dira instalazinoak eta instalazinoetako materialak, ganerako pertsoneri eta ondasunei eragin dakiekizan kalteei erantzunez. Erantzukizun horren barruan sartzen da, baita, errepidezko trafikoan zirkulazinoaren arloko arauak ez betetea be.

Udalak beretzat gorde dau zehapenak jarteko edo instalazinoetara sartzea eragozteko eskubidea. Ondokoa da faltak ezarteko koadroa:

Falta arina:

- Pertsoneri edo ondasunei gaitzuste edo zabarkeria larriz kalteak eragitea.

- Honako arautegiaren edo Udaleko beharginen jarraibideei jaramonik ez egitea.
- Heziera onari jagokozan oinarrizko arauak ez betetea.
- Ganerako pertsoneri txartel barik sartzen iztea.
- Zirkulazino arloan indarrean dagozan arauak eta araudi honetan beren beregi emon diran arauak ez betetea.

Falta larria:

- Urtean hiru falta arin pilatzea.
- Inoren ondasunak ohostutea edo halakoak lapurtzeko ekintzetan esku hartzea.
- Instalazinoei edo erabiltzaileei kalte larriak behin eta barrero eragitea.
- Errietak, liskarrak edo jarduera politiko partidistak antolatzea edo halakoetan parte hartzea.
- Lokal publikoei eratzikirik dagozan legeak ez betetea (tabakoari, edari destilatuei eta substantzia sorgogarriei buruzkoak).
- Zirkulazino arloan indarrean dagozan arauak eta araudi honetan beren beregi emon diran arauak behin eta barrero ez betetea.

11. ARTIKULUA.- ZEHAPENAK

Faltak kasuan kasuko kariak aztertu ostean zehatuko dira, eta aurretiaz interesatuaren eta demandagilearen entzunaldia bideratu beharko da, halan danean.

Eragiten dan kaltearen ordaina emoteko eskabidea aurretiazko entzunalditik apartekoa izango da, eta indarreko arautegiari loturik egongo da errekurtsio egokiak jarteari jagokonez.

Ondoko zehapen honeek ezarri dira:

1. Falta larri errepikaria danean: txartela erabilteko eskubidea galtzea edota urte bitik bost urtera arteko epealdian instalazino guztiak erabiltea debekatzea.
2. Falta larria danean: txartela erabilteko eskubidea galtzea edota sei hiletik urte bira arteko epealdian instalazino guztiak erabiltea debekatzea.
3. Falta arin errepikaria danean: txartela erabilteko eskubidea galtzea edota hilabetetik sei hilera arteko epealdian instalazino guztiak erabiltea debekatzea.
4. Falta arina danean: txartela erabilteko eskubidea galtzea edota egun batetik hogeita hamar egunera arteko epealdian instalazino guztiak erabiltea debekatzea.

12. ARTIKULUA.- SALBUESPENAK

Liburutegia antolatu eta kontroletako udal beharginik ez dagoanean eta Liburutegia kontrolau beharra dagoanean, instalazino hori itxi egin beharko da, harik eta alkarteren bategaz, pertsonaren bategaz edo pertsonaren batzuekaz instalazinoa erabili eta antolatzeko hitzarmena izenpetu arte.

Bien bitartean, instalazino hori une jakin batean beren beregi erabilteko baimena eskatu beharko da udal bulegoetan (Idazkaritzan).

13. ARTIKULUA.- KONTROLGAILUAK

- 1 Udaltzainik ezean, zirkulazino arloko arauak ez betetea Ertzaintzaren bitartez izapidetuko dira, eta arautegi honetan jasoten diran ganerako arauak bete ezik, manuzkoa dan espedientea jarriko da abian.
- 2 Udalak beretzat gorde dau ausazko ikuskapenak egiteko eskubidea, honako ordenantza honetan jasoten diran arauak bete daitezcan; horretarako, beti eukiko ditu ikutzen diran instalazinoetara sartzeko giltzak eta sarbide guztien kontrola.
- 3 Udalak beretzat gorde dau honako arautegi honetan zehaztu barik dagozan gaiak interpretetako eskubidea.

14. ARTIKULUA.- AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau Osoko Bilkuran onesteko izapideak gauzatu ostean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorik jarriko da indarrean.

Honako arautegi honek modu automatikoan indargabetuko dau ELANTXOBEKO ZENTRO SOZIO-KULTURALAREN SARBIDEA ETA ERABILEREA ERREGULETAKO ARAUTEGIA.

Arautegi hau Osoko Bilkureak bi mila eta hamabosteko urriaren zortzian egin eban batzarrean onetsi zan, behin-behinean, eta B.A.O.ren bi mila eta hamabosteko urriaren 15eko 198. zenbakian argitaratu zan.

Arautegi hau Osoko Bilkureak bi mila eta hamabosteko zemendiaren hogeta zazpian egin eban batzarrean onetsi zan, behin betiko.